# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 935

*AGINDUA, 2023ko otsailaren 13koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaietako kideak.*

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 17ko Aginduaren bidez, enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak iragarri ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostu hauetarako: kaizainburua, mekanikari gainbegiralea, peritu judiziala, mantentze-lanetako teknikaria, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea eta Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea. Horrez gainera, enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak iragarri ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostu hauetarako: kontserbatzailea, laborategiko laguntzailea, kaizaina, mekanikaria, medikua (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia), praktiketako monitorea, EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna, mantentze-lanetako arduraduna, histopatologiako teknikaria, laborategiko teknikaria, laborategiko teknikari fakultatiboa, Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilea, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako hezitzailea, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoa, eta Ibaiondo heziketa-zentroko psikologoa.

Hautaketa-prozesu horiek egiteko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduan xedatutakora joko da, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri orokorren 17. apartatuan ezartzen da Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez izendatuko direla enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaikideak, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela. Halaber, xedatzen da kategoria bakoitzean epaimahaikide berak egongo direla enplegua finkatzeko prozesu berezietan eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.8 artikuluan xedatzen denaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 17ko Aginduaren bidez honako lanpostu hauetarako deitutako enplegua finkatzeko prozesuetako epaimahaietako kideak izendatzea:

Enplegua finkatzeko prozesu bereziak:

– Kaizainburua.

– Mekanikari gainbegiralea.

– Peritu judiziala.

– Mantentze-lanetako teknikaria.

– Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea.

– Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea.

Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak:

– Kontserbatzailea.

– Laborategiko laguntzailea.

– Kaizainburua.

– Kaizaina.

– Mekanikaria.

– Mekanikari gainbegiralea.

– Medikua (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia).

– Praktiketako monitorea.

– Peritu judiziala.

– EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna.

– Mantentze-lanetako arduraduna.

– Histopatologiako teknikaria.

– Laborategiko teknikaria.

– Laborategiko teknikari fakultatiboa.

– Mantentze-lanetako teknikaria.

– Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea.

– Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilea.

– Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako hezitzailea.

– Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoa.

– Ibaiondo heziketa-zentroko psikologoa.

– Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea.

Agindu honen eranskinean dago jasota epaimahaien osaera.

Izendatutako pertsonek osatuko dituzte aipatutako epaimahaiak, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorriz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 13a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

ERANSKINA

1.– Epaimahaia: peritu judizialaren enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.

| | | |
|---|---|---|
| Epaimahaiburua | Titularra | Luís Ignacio López de Aguileta Salazar |
| | Ordezkoa | Ignacio Eguiara Garay |
| Lehenengo bokala | Titularra | Juan José Olabarria Inchaurbe |
| | Ordezkoa | Joseba Andoni Beldarrain Agirre |
| Bigarren bokala | Titularra | José Miguel Muñoz San Martín |
| | Ordezkoa | Álvaro Mozo Avellaned |
| Hirugarren bokala | Titularra | M.ª Jesús Markaida Uriarte |
| | Ordezkoa | José Ángel Peña Armendariz |
| Idazkaria | Titularra | Guillermo Aranzabe Pablos |
| | Ordezkoa | Asier Madariaga Markuartu |

2.– Epaimahaia: laborategiko laguntzaile, histopatologiako teknikari, laborategiko teknikari eta laborategiko teknikari fakultatiboaren enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak.

| | | |
|---|---|---|
| Epaimahaiburua | Titularra | Inmaculada García Robles |
| | Ordezkoa | Enrique Ulibarrena Bellido |
| Lehenengo bokala | Titularra | Jon Iñaki Álvarez Uriarte |
| | Ordezkoa | Alberto Apaolaza Sáez de Viteri |
| Bigarren bokala | Titularra | Rubén Sevillano Mateos |
| | Ordezkoa | Agurtzane Manrique Alonso |
| Hirugarren bokala | Titularra | Ainara Sudupe Moreno |
| | Ordezkoa | Julia María Lamas Ruiz |
| Idazkaria | Titularra | Jon Jagoba Atxutegi Altuna |
| | Ordezkoa | Izaskun Uriarte Abona |

3.– Epaimahaia: medikuen (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia) enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.

| | | |
|---|---|---|
| Epaimahaiburua | Titularra | Jesús Ángel Ocio Armentia |
| | Ordezkoa | Ana Rosa Zubia Ortiz de Guinea |
| Lehenengo bokala | Titularra | Enrique Alamillo Gascón |
| | Ordezkoa | Adolfo Cid Martínez de la Pera |
| Bigarren bokala | Titularra | Adela Olascoaga Arrate |
| | Ordezkoa | Arantzazu Urzelai Iñurritegi |
| Hirugarren bokala | Titularra | Francisco Borja Cirarda Larrea |
| | Ordezkoa | Iñigo Artetxe Arrieta |
| Idazkaria | Titularra | Leire Bergara Sautua |
| | Ordezkoa | M.ª Eugenia Abad Goñi |

4.– Epaimahaia: praktiketako monitorearen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.

| | | |
|---|---|---|
| Epaimahaiburua | Titularra | Félix Guarrotxena Arlunduaga |
| | Ordezkoa | Miren Edurne Gabilondo Arbulu |
| Lehenengo bokala | Titularra | Inés Urieta Guijarro |
| | Ordezkoa | José Antonio Pérez Salgado |
| Bigarren bokala | Titularra | Juan Ramón Puy Pitarque |
| | Ordezkoa | Ana M.ª Jiménez Zabala |
| Hirugarren bokala | Titularra | Francisco Santiago Valcarcel Alonso |
| | Ordezkoa | Francisco Javier Gómez Osua |
| Idazkaria | Titularra | Verónica Motta Gurtubay |
| | Ordezkoa | Ainara Herce San Martín |

5.– Epaimahaia: enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak: Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea, Ibaiondo heziketa-zentroko gizarte-langilea, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako hezitzailea, Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako psikologoa, Ibaiondo heziketa-zentroko psikologoa eta Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea; eta enplegua finkatzeko prozesu bereziak: Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako gizarte-langilea eta Ibaiondo heziketa-zentroko koordinatzailea.

| | | |
|---|---|---|
| Epaimahaiburua | Titularra | Eva Remedios Ammann Debont |
| | Ordezkoa | Luís Ángel Agirre Muxika |
| Lehenengo bokala | Titularra | M. Ángeles Elicegui González |
| | Ordezkoa | Pablo María Martínez Larburu |
| Bigarren bokala | Titularra | M. Remedios Cadenas Fernández |
| | Ordezkoa | Jesús María Guerrero Guecho |
| Hirugarren bokala | Titularra | María Patrocinio Hidalgo Borbujo |
| | Ordezkoa | Carmen Guijarro Santamaría |
| Idazkaria | Titularra | Ramón Andrinua Lazkano |
| | Ordezkoa | Iñigo Cortázar Ibáñez |

6.– Epaimahaia: enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak: kontserbatzailea, kaizainburua, kaizaina, mekanikaria, mekanikari ganbegiralea, EJko administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna, mantentze-lanetako arduraduna eta mantentze-lanetako teknikaria; eta enplegua finkatzeko prozesu bereziak: kaizainburua, mekanikari gainbegiralea eta mantentze-lanetako teknikaria.

| | | |
|---|---|---|
| Epaimahaiburua | Titularra | Jesús Valcarlos Illarregui |
| | Ordezkoa | Ignacio Basáñez Alfonso |
| Lehenengo bokala | Titularra | Oihana Amundarain Fernández |
| | Ordezkoa | Oscar Javier Oleaga Zabarte |
| Bigarren bokala | Titularra | José Luís Coca Gutiérrez |
| | Ordezkoa | Joseba Miren Arocena Fernández |
| Hirugarren bokala | Titularra | César Díez Fernández |
| | Ordezkoa | Ana Isabel Fortea Pereda |
| Idazkaria | Titularra | Gemma Jauregui Beldarrain |
| | Ordezkoa | María Ángeles González Echevarria |